

80ko moda.mp3

Esataria: Arratsalde on! Gaurkoan, gure tertuliakide Maitane Iturriak 80ko modari buruz hitz egingo digu. Ez da hala?

Maitane: Bai, halaxe da.

Esataria: Zein dira 80ko hamarkadako modaren ezaugarriak?

Maitane: 80ko hamarkadako modari buruz, lehenik eta behin esan behar da arropa garestia eta batez ere osagarriak nabarmendu zirela. Arropa distiratsua eramateko joera zegoen, aberats- eta arrakasta-itxura erakutsi nahi zen-eta. Alabaina, joera horren aurka, hain zuzen ere, aurreko belaunaldietako punk moda berrindartu eta modan jarri zen berriro ere.

Eta zein izan ziren 80ko modako jantzi mitikoak? Bada, hauexek:

Txaketak, jakak eta berokiak erabiltzen ziren, eta handiak. Horietan guztietan modan zegoen sorbaldakoak eramatea.

Kolore deigarriko alkandora estanpatuak zeuden modan, eta batez ere alkandora bakeroak, zabalak eta maukak jasota eramatekoak. Jertseak ere oso handiak erabiltzen ziren.

Orrazkerari dagokionez, bolumen handiko ilea zegoen modan, kizkurra. Kopeta-ilea edo flekilloa gorantz jasota eramaten zen. Gizonek ilea moztu zuten, ile luzea, bizarra eta patillak beste garai batekoak ziren-eta, hippyen garaikoak. Dena dela, bolumena ematen zioten ileari, eta gorantz igotzen zuten. Hori lortzeko, aerosola erabiltzen zuten.

Eta makillaje distiratsua zegoen modan, asko nabarmentzen zena.

Horrez gain, modan zegoen minigonak eramatea. Mota askotarikoak erabiltzen ziren: estuak, arinak eta gardenak, larruzkoak, bakeroak edo tulezkoak, besteak beste. Eta kolore distiratsua eta bizia zuten.

Leggingsak ere oso modan zeuden, kolore bizikoak eta distiratsuak, eta zango-berogarriak ere bai; edozein oinetakorekin erabiltzen ziren: zapatilekin, bailarinekin, botekin...

Galtza pitilloak ere modan zeuden, hanka estu-estua zeukatenak, bai eta galtza zabal-zabalak ere, Hammer prakak deiturikoak MC Hammer raperoaren estilokoak zirelako, sintetikoak eta koloretakoak.

Asko erabiltzen ziren plataformadun oinetakoak, baita zapatilak, bailarinak eta takoidun zapatak ere. Punk moda jarraitzen zutenek belaunerainoko botak eramaten zituzten.

Bitxiei dagokienez, fantasia eta distira handiko bitxien garaia izan zen: urre-itxura zuten uztai-formako belarritako handiak, perladun lepokoak, eskuturreko mordoak denak eskutur berean... Eta, gaur egun arrunta bada ere, mutilak garai hartan hasi ziren belarritakoak erabiltzen.

Eta horiexek 80ko hamarkadako modari buruzko ezaugarriak!

Esataria: Mila esker, Maitane. Gaurkoan ere oso gai interesgarria ekarri diguzu-eta. Hurrengo astera arte.

Maitane: Eskerrik asko. Aio!! Laster arte!!